



LANKIDETZA-HITZARMENA, HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN ETA IZENPE, SA ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESAREN ARTEKO, IDENTIFIKAZIO-BITARTEKO ELEKTRONIKOAK HEDATZEKO IZENPETUA

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL INSTITUTO VASCO DE ADMINISTRACIÓN PÚBLICA Y ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACIÓN Y SERVICIOS, IZENPE, S.A. PARA EL DESPLIEGE DE MEDIOS DE IDENTIFICACIÓN ELECTRÓNICOS

BILDUTA

REUNIDOS

Alde batetik, **Maite Iruretagoiena Iburguren andrea**, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen Zuzendaria, erakunde horren izenean eta hura ordezkatzuz.

De una parte, **D^a. Maite Iruretagoiena Iburguren**, Directora del Instituto Vasco de Administración Pública, en nombre y representación del mismo.

Aurrerantzean, HAEE.

En adelante, el IVAP

Bestetik, **Izaskun Urrestarazu Amondarain andrea**, *IZENPE, SA Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresaren* izenean eta hura ordezkatzuz.

De otra, **D^a. Izaskun Urrestarazu Amondarain**, en representación de *Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa-Enpresa de Certificación y Servicios, IZENPE, S.A.* en nombre y representación de la misma

Zuzendaria delako ditu eskumenak, 2016ko martxoaren 21ean Vitoria-Gasteizko notario Alfredo Pérez Ávila jaunaren aurrean (bere protokoloko 773 zenbakiarekin) emandako ahalorde-eskritura betez (behar bezala inskribatua Arabako Merkataritza Erregistroan, 1541. liburukian, 79. folioan, VI-8926 orrian).

Sus facultades resultan de su condición de Directora, en virtud de escritura de poder otorgada el 21 de marzo de 2016, ante el Notario de Vitoria-Gasteiz, D. Alfredo Pérez Ávila bajo el número 773 de su protocolo, debidamente inscrita en el Registro Mercantil de Álava al Tomo 1541, Folio 79, Hoja VI-8926.

Aurrerantzean, Izenpe.

En adelante, Izenpe.

Bi aldeek hitzarmen hau sinatzeko behar adinako ahalmen juridikoa aitortzen diote elkarri, eta honakoa

Ambas partes se reconocen la capacidad jurídica necesaria para suscribir el presente Acuerdo y en su virtud,



AZALTZEN DUTE:

EXPONEN QUE

1. *Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak* administrazio elektronikoen ezarpenean sakontzen du, prozedura arinagoak eta gardenagoak lortzeko, gaur egungo gizartearen premiei erantzungo dietenak eta berekin ekarriko dutenak administrazio-prozedurak herritarrentzat sinplifikatzea, hori beharrezkoa baita. Bitarteko elektronikoen erabilera bermatzeko eta orokortzeko, Administrazioak beharrezkoak diren sistemak eta aplikazioak jarri behar ditu herritarren eskura.

Administrazio elektronikoen oinarrietako bat, hain zuzen, prozeduran interesdun direnek erabil ditzaketen identifikazio- eta sinadura-sistemak zehaztea da. Aipatutako lege-testuaren 9. artikulutik 12. artikulura bitarteko artikuluetan daude araututa alderdi horiek.

9. artikuluan ezartzen denez, administrazio publikoak behartuta daude administrazio-prozeduran interesdun direnen nortasuna egiaztatzea, eta, halaber, artikulur horren 2. puntuan, interesdunak elektronikoki identifikatzeko zer sistema onartzen diren zehazten da, eta sistema horiek erabiltzaile gisa aurrez erregistratzeko eta nortasuna egiaztatzeko modua izan behar dutela ezartzen da.

10. artikuluan, bestalde, Administrazio Publikoek onartzen dituzten sinadura-sistemak arautzen dira.

2. Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek, euren informatika-sozietateen bidez, Izenpe sozietatea eratu zuten, identifikazio eta sinadura elektronikoko berezko sistema erkide gisa erabil zedin, funtsezko xedetzat hartuta erakundeen zerbitzura jartzea herritarrek eta enpresek elkarrekin eta administrazioekin harremanak izateko behar

1. La *Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas* ha implantado la Administración electrónica con el objetivo de conseguir procedimientos más ágiles y transparentes que den respuesta a las necesidades de la sociedad y que redunden en una necesaria simplificación administrativa para los ciudadanos. Para garantizar y generalizar la utilización de medios electrónicos, la Administración debe poner a disposición de la ciudadanía los sistemas y aplicaciones necesarios.

Uno de los pilares sobre el que se sostiene la administración electrónica es la determinación de los sistemas de identificación y firma que pueden utilizar los interesados en el procedimiento. Aspectos estos que aparecen regulados en los artículos 9 a 12 del citado texto legal.

El artículo 9 establece la obligación de las Administraciones Públicas de verificar la identidad de los interesados en el procedimiento administrativo y contempla asimismo, en su apartado 2, los sistemas de identificación electrónica admitidos, previendo que los mismos deben contar con un registro previo como usuario que permita garantizar su identidad.

Por su parte, en el artículo 10 se regulan los sistemas de firma admitidos por las Administraciones Públicas.

2. El Gobierno Vasco y las Diputaciones Forales, a través de sus respectivas sociedades informáticas, constituyeron la sociedad Izenpe, para que actuara como un sistema propio y común de identificación y firma electrónica, con el objetivo fundamental de poner al servicio de las organizaciones los medios necesarios que permitan a la ciudadanía y a las empresas relacionarse entre sí y con las Administraciones



dituzten bitartekoak, bai eta zerbitzu publikoetan sartu ahal izatea ere, integritate eta isilpeketasun berme guztiekin, arbuiorik gabe eta egiaztatuta; eta zerbitzu horiek ezartzeko ezinbesteko elementuetako bat identifikazio elektronikoa da.

3. *Europako* Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko uztailaren 23ko 910/2014 Erregelamenduak (EB) ezartzen duenez (erregelamendu hori identifikazio elektronikoari eta barne-merkatuko transakzio elektronikoetarako konfiantzazko zerbitzuei buruzkoa da, eta 1999/93/EE Zuzentaraua indargabetzen du), konfiantzazko zerbitzu baterako ziurtagiri kualifikatu bat emateko, konfiantzazko zerbitzuak ematen dituenak ziurtagiri kualifikatua ematen zaion pertsonaren nortasuna identifikatuko du, zuzenean edo hirugarren baten bidez, eta hirugarren horrek erregistro-entitatearen izaera eskuratuko du.

Testuinguru horretan, HAEK eta Izenpek hitzarmen hau sinatu nahi dute, pertsona fisikoak identifikatzeko bitarteko elektronikoa hedatzeko, eta HAEK izango da Izenperen erregistro-entitatea.

Horretarako, bi aldeek hitzarmen hau egitea hitzartu dute, klausula hauen bidez arautuko dena:

accediendo a los servicios públicos con garantía de integridad, confidencialidad, no repudio y autenticidad, siendo la identificación electrónica un elemento inexcusable en la implantación de estos servicios.

3. El *Reglamento (UE) N° 910/2014 DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO de 23 de julio de 2014 relativo a la identificación electrónica y los servicios de confianza para las transacciones electrónicas en el mercado interior y por la que se deroga la Directiva 1999/93/CE* establece que al expedir un certificado cualificado para un servicio de confianza, el prestador de servicios de confianza verificará la identidad de la persona a la que se expide el certificado cualificado bien directamente o bien por medio de un tercero, adquiriendo así el tercero la condición de Entidad de Registro.

En este contexto, el IVAP e Izenpe pretenden suscribir el presente convenio regulador para el despliegue de medios de identificación electrónica de personas físicas adquiriendo el IVAP la condición de Entidad de Registro de Izenpe.

Para ello, ambas partes pactan celebrar el presente acuerdo que se registrará por las siguientes

KLAUSULAK

CLÁUSULAS

LEHENA.- XEDEA

Hitzarmen honen xedea HAEEn eta Izenperen arteko lankidetzaren esparru bat ezartzea da. Esparru horren bidez, Aldi baterako Pasahitza eta BakQ identifikazio elektronikoko bitartekoak HAEK garatuko dituen hautapen-prozesuen testuinguruan hedatuko dira.

PRIMERA.- OBJETO

El objeto del presente Convenio es establecer un marco de colaboración entre el IVAP e Izenpe, para el despliegue de los medios de identificación electrónicos: Contraseña Temporal y BakQ, en el contexto de los procesos selectivos que desarrolle el IVAP.



BIGARRENA.- EGIN BEHAR DIREN JARDUERAK

HAEEK,

- Arestian aipatutako bitartekoak jaulkitzen lagunduko du.

Aldi Baterako Pasahitza delakoaren jaulkitzeari dagokionez:

- Hautapen-prozesuan parte hartzeko eskaria egiten den unean bertan, bere datu pertsonalak Izenpera igortzeko baimena eskatuko dio HAEEK eskatzaileari, xedea Aldi Baterako Pasahitz bat sortzea dela adieraziz.

- BakQ delakoari dagokionez:

Dagokion hautapen-prozesuaren barruan egindako azterketara aurkeztu direnei soilik eskatuko zaie beren datu pertsonalak Izenperen esku jartzeko baimena.

- BakQ bitartekoa jaulkitzeko eremuan ere, Izenperen erregistro-entitatea bilakatu eta eskatzaile diren pertsona fisikoen identitatea egiaztatuko du.

SEGUNDA.- ACTUACIONES A DESARROLLAR

El IVAP,

- Colaborará en la expedición de los medios arriba indicados.

En relación a la expedición de:

- Contraseña Temporal.

El IVAP solicitará, en el momento de realizar la solicitud de participación en el proceso selectivo, la autorización a la persona solicitante para la comunicación a Izenpe de sus datos personales, a fin de que se emita la Contraseña temporal.

- BakQ.

Solicitará, únicamente a aquellas personas que se hayan presentado al examen desarrollado dentro del correspondiente proceso selectivo, autorización para comunicar a Izenpe sus datos personales.

- Asimismo en el ámbito de la emisión de BakQ adquirirá la condición de Entidad de Registro de Izenpe llevando a cabo la verificación de la identidad de las personas físicas solicitantes.

HIRUGARRENA.- INDARRALDIA

Hitzarmen honek lau urteko indarraldia izango du, sinatzen den egunetik hasita.

Indarraldia amaitu aurreko edozein unetan, aldeek aho batez adostu ahalko dute hura beste lau urtez luzatzea; edo hura azkentzea.

TERCERA.- PERIODO DE VIGENCIA

El presente Convenio tendrá una vigencia de cuatro años a contar desde la firma del mismo.

En cualquier momento antes de la finalización del plazo de vigencia, las partes podrán acordar unánimemente su prórroga por un periodo de hasta cuatro años adicionales o su extinción.

LAUGARRENA.- ERREGIMEN EKONOMIKOA

Hitzarmen honek ez dakarkie betebeharrak ekonomikorik aldeei.

CUARTA.-RÉGIMEN ECONÓMICO

El presente Convenio no generará obligaciones económicas para ninguna de las partes.



BOSGARRENA. - ALDEEN BETEBEHARRAK

1. HAEK erregistro-entitate gisa dagozkion jarduerak egingo ditu. Hauek, bigarren klausulan ezarrita daude, eta kontuan hartuko du [Izenperen Ziurtapen Praktiken Deklarazioa](#), hemen argitaratua: www.izenpe.eus/dpc.

- Eskatzailearen identitatea egiaztatutzat joko da, Izenpek ezarri dituen baldintzetan, dagokion hautapen-prozesuaren barruan egindako frogak garatzen duen bitartean HAEK izangaiaren identitatea egiaztatzen duenean.

Xede horietarako, identitate-egiaztapentzat hartuko da izangaiak sinatu duen identifikazio-orria/azterketa-orria/identifikazio-txartela. HAEK 15 urtez gordeko du, gutxienez, aipatu egiaztapena.

- Bere jarduera eraginkortasunaren, kalitatearen, segurtasunaren eta gardentasunaren printzipioetan oinarritzea.
- Izenperen hornitzaileentzako segurtasun-politika betetzea; [Izenperen hornitzaileentzako segurtasun-politika](#), hemen argitaratua: www.izenpe.eus.
- Eskatzaile diren pertsonen jarraibide zehatzak emango dizkie, identitate digitalaren prozesua sortzeko eta amaitzeko.

2.- Hauek izango dira Izenperen betebeharrak, kasu bakoitzean adierazten den irismenarekin:

- HAE Eri jakinaraztea nola egin erregistro-erakunde gisa dagozkion jarduerak, eta sortzen den edozein kontutan laguntzeko prest egotea.

QUINTA. - OBLIGACIONES DE LAS PARTES

1. El IVAP en relación a su actuación como Entidad de Registro.

- Realizará las tareas previstas en la cláusula segunda atendiendo a lo establecido en la [Declaración de Prácticas de Certificación de Izenpe](#), publicada en www.izenpe.eus/dpc.

Se entenderá verificada la identidad del solicitante según los requisitos establecidos por Izenpe cuando el IVAP verifique la identidad de la persona aspirante durante el desarrollo de las pruebas del proceso selectivo correspondiente.

A estos efectos tendrá la consideración de evidencia de identificación la hoja de identificación/hoja de examen/tarjeta de identificación firmada por la persona candidata debiendo conservar el IVAP la misma durante al menos 15 años.

- Basará su actuación en los principios de eficiencia, calidad, seguridad y transparencia.
- Cumplirá la Política de Seguridad de proveedores de Izenpe, [Política de seguridad de proveedores de Izenpe](#), publicada en www.izenpe.eus.
- Facilitará a las personas solicitantes las instrucciones precisas para la creación y finalización del proceso de identidad digital.

2.- Serán obligaciones de Izenpe, con el alcance que en cada caso se señala:

- Informar al IVAP sobre cómo realizar las tareas de Entidad de Registro, quedando a su disposición para cualquier cuestión que pudiera surgir.



Horretarako, beharrezkoa den prestakuntza emango die nortasun digitalak sortzeko eta egiaztatzeko ardura duten langileei.

- Erabiltzaileak erregistratzeko eta identifikatzeko beharrezkoa den softwarea HAEEn esku jartzea.

A estos efectos, impartirá la formación que sea necesaria al personal encargado de las tareas de generación y comprobación de identidades digitales.

- Poner a disposición del IVAP el software necesario para llevar a cabo las tareas de registro e identificación de usuarios.

SEIGARRENA.- ALDEEN ERANTZUKIZUNA

1.- HAEek erantzukizun hauek izango ditu:

- [Izenperen Ziurtapen Praktiken Deklarazioan](#) zehazten dena betetzea, aplikatzekoa denari dagokionez.
- Zerbitzua behar bezala erabiltzea, Hitzarmen honetan zehaztutakoari jarraiki.
- Hitzarmen honetan zehaztutako betebeharrak ez betetzearen ondorioz sortzen diren kalteekiko erantzukizuna Izenperen aurrean.

2.- Izenpek erantzukizun hauek izango ditu:

- Hitzarmen honetan zehaztutakoa behar bezala egitea.
- Zehazki, konfiantzako zerbitzuen emaile den aldetik, edozein pertsonak bere jarduera egitean hitzarmen honek edo legeriak –hots, konfiantzako zerbitzuak ematearen arloan aplikatzekoa den legeriak– ezartzen dituen betebeharrak ez betetzearen ondorioz edo arduragabekeriak jokatzaren ondorioz sortzen dituen kalte-galeren erantzule izango da.

SEXTA.- RESPONSABILIDAD DE LAS PARTES

1.- El IVAP será responsable:

- Del cumplimiento de lo determinado en la [Declaración de Prácticas de Certificación de Izenpe](#) en lo que sea de aplicación.
- Del uso adecuado del servicio según lo determinado en el presente Convenio.
- Frente a Izenpe por los daños causados derivados del incumplimiento de sus obligaciones determinadas en este Convenio.

2.- Izenpe:

- Responderá de la correcta prestación de lo aquí determinado.
- En particular, como Prestador de Servicios de Confianza, responderá por los daños y perjuicios que cause a cualquier persona en el ejercicio de su actividad cuando incumpla las obligaciones que le impone este Convenio o la legislación aplicable en materia de prestación de servicios de confianza o actúe con negligencia.



ZAZPIGARRENA.- KONFIDENTZIALTASUNA ETA DATU PERTSONALEN TRATAMENDUAREN ARDURADUN GISA HAEK DITUEN BETEBEHARRAK

1- Konfidentzialtasuna.

Hitzarmen honen betetzearen ondorioz HAEK zein huraren gauzatera atxikitako pertsonak eta, bere kasuan, azpikontratutako enpresek jasotzen duten informazio guztia konfidentziala da eta aplikatzeko den araudiari jarraiki lanbide-sekretua gordetzeko betebeharren mende dago. Horrenbestez, sekretupean eta erreserban mantenduko da eta ezingo zaio inola ere erazagutu, osotasunean edo partzialki, gauzatze horretatik at dagoen edozein pertsona fisiko edo juridikori, Administrazioaren aurretiazko eta berriazko baimena izan ezean.

Arestian aipaturiko pertsona fisiko edo juridikoetako edozeinek konfidentzialtasuna gordetzeko betebeharra eta, bere kasuan, lanbide-sekretua gordetzeko betebeharra beteko ez balu dagokion erantzukinak eta sorturiko kalte-ordainen asetzea eskatuko liriteke. HAEK agindua gauzatzen bukatu badu ere edo HAEEn eta enpresa azpikontratataren arteko hitzarmen-harremana iraungi bada ere, arestian zehaztutako betebeharrak bete beharko dira.

Nolanahi ere, datu pertsonalen tratamendua eskatzen ez duten eginkizunen gauzatean ezingo da izaera horretako daturik eskuratu eta derrigorrezkoa izango da eskura litezkeen datuak sekretupean gordetzea.

2.- Datu pertsonalak tratatzeko ardura

Hitzarmen honen betetzeari begira, HAEK "Identifikazio-bitartekoen kudeaketa" izeneko tratamenduan sarturiko datu pertsonalak tratatuko ditu. Izenpe da aipatu tratamenduaren erantzulea. HAE, horrenbestez, tratamenduaren arduraduna bihurtuko da.

"I. Eranskina – Datu Pertsonalen Tratamendua" idazkiak babestu beharreko datu pertsonalak eta

SÉPTIMA.- CONFIDENCIALIDAD Y OBLIGACIONES DEL IVAP COMO ENCARGADO DE TRATAMIENTO DE DATOS PERSONALES

1- Confidencialidad.

Toda la información a la que tengan acceso con ocasión del cumplimiento del Convenio, tanto el IVAP como las personas por ella adscritas a su ejecución y, en su caso, las empresas subcontratistas, tiene el carácter de confidencial y está sometida al deber de secreto profesional, de conformidad con su normativa aplicable, por lo que deberá mantenerse en reserva y secreto y no revelarse de ninguna forma, en todo o en parte, a ninguna persona física o jurídica que no sea parte del encargo, salvo que medie autorización previa y expresa de la Administración.

La vulneración por parte de cualquiera de las personas físicas o jurídicas anteriores del deber de confidencialidad y, en su caso, del deber de secreto profesional dará lugar tanto a la exigencia de las correspondientes responsabilidades como de los daños y perjuicios ocasionados. Deberá cumplirse con tales deberes aun cuando el IVAP haya finalizado la ejecución del encargo o haya cesado la relación convenial entre el IVAP y la empresa subcontratista.

En todo caso, en la realización de trabajos que no impliquen el tratamiento de datos personales, queda prohibido acceder a ellos, y es obligatorio guardar secreto respecto a los que pudieran conocerse.

2- Encargo de tratamiento de datos personales

Para el cumplimiento de este Convenio, el IVAP tratará los datos personales que figuran en el tratamiento denominado «Gestión de medios de identificación» cuyo responsable del tratamiento es Izenpe. El IVAP actuará así en calidad de Encargado de tratamiento.

El «Anexo I - Tratamiento de datos personales» describe en detalle los datos personales a



egin beharreko tratamendua edo tratamenduak xehetasunez deskribatzen ditu.

Aginduaren gauzatzearen ondorioz beharrezkoa izango balitz aipatu Eranskinean jasotakoa aldatzea, tratamenduaren arduradunak eguneratutako Eranskin bat sortu ahalko du.

3- Datu pertsonalen tratamenduaren arduradunak dituen betebeharrak

“Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duen 2016ko apirilaren 27ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamenduaren (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra)” 28. artikulua eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Legeak diotenaren arabera, HAEEK ondoko betebeharrak izango ditu:

a) Ezingo ditu “I. Eranskina – Datu Pertsonalen Tratamendua” idazkian jasotakoak ez diren beste datu pertsonal batzuk eskuratu edo tratatu. Halaber, eskuratu edo tratatuko dituen datu pertsonalak aginduaren xedea betetzeko helburuarekin baino ez ditu erabili edo aplikatuko.

Nolanahi ere, hautapen-prozesua kudeatzeko trataturiko datuak eta Aldi Baterako Pasahitza eta BakQ delakoa lortzeko trataturiko datuak berberak dira eta HAEEK eta Izenpek egingo duten horien erabilera ez da berdina izango.

b) Datu pertsonalak Hitzarmen honetan jasotako jarraibideak eta, bere kasuan, tratamenduaren erantzulea den erakundetik idatziz jasotzen dituen jarraibideak betez tratatuko ditu. Bere ustez unean-unean aplikatzekoa den datuak babesteko araudiaren kontra doan jarraibideren bat

proteger así como el tratamiento o tratamientos a realizar.

En caso de que, como consecuencia de la ejecución del encargo, resultara necesario en algún momento la modificación de lo estipulado en el citado Anexo, el responsable del tratamiento podrá emitir un Anexo actualizado.

3- Obligaciones como encargado del tratamiento de datos personales

El IVAP cumplirá las siguientes obligaciones de conformidad con lo previsto en el artículo 28 del «Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y por el que se deroga la directiva 95/46/CE (Reglamento general de protección de datos)» (RGPD), y de conformidad con lo previsto en la Ley 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales:

a) No accederá o tratará otros datos personales que no sean los especificados en el «Anexo I -Tratamiento de datos personales», ni utilizará o aplicará los datos personales a los que acceda o trate con una finalidad distinta a la ejecución del objeto del encargo.

No obstante, los datos tratados para gestionar el proceso selectivo y los tratados para la obtención de la Contraseña Temporal y de BakQ son los mismos por lo que sobre los mismos datos el IVAP e Izenpe realizan tratamientos diferentes.

b) Tratará los datos personales conforme a las instrucciones documentadas en el presente Convenio y a aquellas que, en su caso, reciba del órgano responsable del tratamiento por escrito, e informará inmediatamente a este último cuando, en su opinión, una instrucción sea contraria a la normativa de protección de datos personales aplicable en cada momento.

- balego, egoera horren berri emango dio berehala aipatu erantzuleari.
- c) DBEOko 32. artikuluan jasotako segurtasuneko eta arriskua murrizteko irizpideak betez tratatuko ditu datu pertsonalak eta behar dina teknika- eta antolakuntza-mailako segurtasun-neurri hartuko ditu bere eskura izango dituen tratu pertsonalen konfidentziasun, sekretu eta osotasuna bermatzeko.
- d) Hitzarmena gauzatzeko xedearekin jaso dituen datu pertsonalen eta horien tratamenduaren ondorioz lortutako horien erabateko konfidentziasuna gordeko du, beren euskarria dena dela. Betebehar hori HAEEn izenean eta hura ordezkatzuz datu pertsonalak tratatzeko prozesuaren edozein unetan esku hartuko duen pertsona orok izango du. HAEek bere mendeko langileak sekretu hori gordetzeko behararen inguruan trebatzeko ardura dauka. Halaber, betebehar hori aginduaren prestakuntza amaitu ostean edo aginduaren gauzatzean esku-hartzeari uzten zaionean ere bete beharko dela adierazi beharko du.
- e) Ez ditu datu pertsonalak hirugarrenen esku utziko, ezta beren kontserbaziorako denean ere, tratamenduaren erantzulea den erakundearen aurretiazko eta berariazko baimena izan ezean kasu bakoitzean.
- f) Eskuratu dituen datu pertsonalak, tratamenduaren ondorioz HAEek sortu dituen datuak eta datu horiek guztiek hartzen dituzten euskarriak eta dokumentuak, direnak direla, bueltatu edo suntsitu beharko ditu, tratamenduaren erantzuleak "I. Eranskina – Datu Pertsonalen Tratamendua" idazkian jaso duen erabakiaren arabera, Jakinarazpen honen xede den agindua amaitu eta gero. Indarreko legediak edo Europako Erkidegoko Zuzenbideko araudiren batek datuak kontserbatzea ahalbidetu edo eskatzen badute, ez ditu datuak suntsituko.
- c) Tratará los datos personales de conformidad con los criterios de seguridad y contención del riesgo conforme a lo previsto en el artículo 32 del RGPD, así como observará y adoptará las medidas técnicas y organizativas de seguridad necesarias o convenientes para asegurar la confidencialidad, secreto e integridad de los datos personales a los que tenga acceso.
- d) Mantendrá la más absoluta confidencialidad sobre los datos personales a los que tenga acceso para la ejecución del convenio, así como sobre los que resulten de su tratamiento, cualquiera que sea el soporte en el que se hubieren obtenido. Esta obligación se extenderá a toda persona que intervenga en cualquier fase del tratamiento de datos personales por cuenta del IVAP, siendo deber de esta última instruir a las personas que de ella dependan, de este deber de secreto, y del mantenimiento de dicho deber aún después de la terminación de la prestación del encargo o de su desvinculación.
- e) No comunicará ni difundirá los datos personales a terceros, ni siquiera para su conservación, a menos que se cuente, en cada caso, con la autorización previa y expresa del órgano responsable del tratamiento.
- f) Devolverá o destruirá, a elección del órgano responsable del tratamiento reflejada en el «Anexo I- Tratamiento de datos personales», los datos personales a los que haya tenido acceso, aquellos otros generados por el IVAP por causa del tratamiento, y los soportes y documentos en que cualesquiera de esos datos consten, una vez finalizado el encargo objeto de la presente Resolución. No procederá su destrucción cuando su conservación se permita o requiera por ley o por norma de derecho comunitario.
- No obstante, el IVAP podrá conservar los datos personales durante el tiempo en que puedan derivarse responsabilidades de su



Nolanahi ere, datu pertsonalak tratamenduaren erantzulearekin duen harremanaren ondorioz erantzukizunen bat egon zitekeen epealdi osoan zehar gorde ahalko ditu HAEEK. Hori egiten duenean, datu pertsonalak blokeatuta izango ditu eta gutxieneko epealdian zehar gordeko ditu. Epealdi hori igarota, aipatu datuak era seguruan eta behin betirako suntsituko ditu.

Arduradun gisa egiten dituen datuen tratamenduei dagokienez, dagokion hautapen-prozesuari dagokion tratamendu-jarduera garatu ahal izateko beharrezkoak diren datu pertsonalak gordeko ditu HAEEK.

- g) Europako Esparru Ekonomikoaren barruan edo aplikatzekoa den legediak segurtasun-esparru kideztat jotzen duen beste esparru baten barruan tratatuko ditu datuak. Agindu honetan ezarritakoa betez, esparru horretatik at ezingo du datu pertsonalik tratatu, ez zuzenean ezta baimendutako edozein azpikontrataren bitartez, Batasunaren legediak edo aplikatzekoa den Estatu kidearen legediak aurrekoa egitea agintzen dionean, "I. Eranskina – Datu Pertsonalen Tratamendua" idazkiak aurkakoa ezartzen duenean edo tratamenduaren erantzuleak hori egitea berariaz agintzen dionean salbu.
- h) Horretarako info@izenpe.com helbidea erabiliz, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez aurkitutako edozein arau-hauste berehala eta arretaz jakinaraziko dio tratamenduaren erantzuleari, 72 orduko gehieneko epearen barruan, gertaturiko jazoera dokumentatu edo komunikatzeko garrantzitsua den dokumentazio guztia emanaz ere. Portaera berdina izango du datu pertsonalen segurtasuna, osotasuna edo eskuragarritasuna arriskuan jar dezakeen informazioa tratatu edo kudeatzeko sistemari loturiko akats ororen aurrean eta enkarguaren gauzatzean zehar lorturiko informazioa edo datuak hirugarrenen esku uztearen ondorioz aipatuen

relación con el órgano responsable del tratamiento, en cuyo caso los conservará bloqueados y por el tiempo mínimo, destruyéndolos de forma segura y definitiva al final de dicho plazo.

El IVAP, en relación a los tratamientos de datos que realiza como responsable, conservará aquellos datos personales que sean necesarios para el desarrollo de la actividad de tratamiento correspondiente al proceso selectivo de que se trate.

- g) Tratará los datos personales dentro del Espacio Económico Europeo u otro espacio considerado por la normativa aplicable como de seguridad equivalente, no tratándolos fuera de este espacio ni directamente ni a través de cualesquiera subcontratistas autorizados, conforme a lo establecido en este encargo, salvo que esté obligado a ello en virtud del Derecho de la Unión o del Estado miembro que le resulte de aplicación, que se indique otra cosa en el «Anexo I - Tratamiento de datos personales» o se instruya así expresamente por el órgano responsable del tratamiento.
- h) Comunicará inmediata y diligentemente al órgano responsable del tratamiento través de la dirección info@izenpe.com cualquier violación de la seguridad de los datos personales a su cargo de la que tenga conocimiento, a más tardar en el plazo de 72 horas, suministrándole toda la información relevante para la documentación y comunicación de la incidencia, o cualquier fallo en su sistema de tratamiento y gestión de la información, que haya tenido o pueda tener, que ponga en peligro la seguridad de los datos personales, su integridad o su disponibilidad, así como cualquier posible vulneración de la confidencialidad, como consecuencia de la puesta en conocimiento de terceros de los datos e informaciones obtenidos durante la ejecución del encargo, incluso concretando qué personas interesadas sufrieron una pérdida de



konfidentzialtasuna kolokan jar dezakeen egoera ororen aurrean. DBEOren 33. artikuluan ezarritakoa betez, beren datuen konfidentzialtasuna urratua izan duten interesatutako pertsonak jakinarazi beharko ditu ere.

- i) Tratamenduaren erantzuleari jakinaraziko dio, ahal bezain pronto, interesatutako persona batek bereak dituen eskubideetako bat gauzatzea eskatu duela; ondoko eskubideetako bat, besteak beste: bere datu pertsonalak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurkaratzeko eskubidea, beren tratamendua edo garraigarritasuna mugatzeko eskubidea eta indarreko legediak aitortzen dituen gainerako eskubideak, bai eta automatizatutako bakarkako erabakien xede ez izateko eskubidea ere.

Komunikazio hori berehala egingo da, info@izenpe.com helbidea erabiliz horretarako eta aipatu eskubidea gauzatzeko eskaria jaso eta 72 orduko gehieneko epearen barruan. Eskatzailearen identifikazio fede-emailea igorriko du, bai eta eskaria ebazteko erabilgarria izan daitekeen eta bere esku duen dokumentazio guztia ere.

Ahal den guztietan, eskaria izapidetzen eta asetzen eta interesatutako pertsonari erantzuten lagunduko dio tratamenduaren erantzuleari.

- j) Tratamenduaren erantzulearekin batera lan egingo du segurtasun-neurriei, komunikazioari eta segurtasun-neurrien arau-hausteen (lortuak eta saiakerak) inguruko jakinarazpena erakunde eskudunei eta interesatutako pertsonari bidaltzeari loturiko betebeharrak betetzen. Halaber, datu pertsonalen babesari buruzko eragin-ebaluazioak gauzatzeko eta horiei buruz agintari eskudunei planteatzen zaizkien zalantzak -tratamenduaren izaera eta eskura dagoen informazioa aintzat hartuz- burutzerakoan ere elkarrekin lan egingo dute.

confidencialidad; todo ello, de conformidad con el artículo 33 del RGPD.

- i) Comunicará al órgano responsable del tratamiento con la mayor prontitud que una persona interesada ejerce ante él cualquiera de los derechos que le asisten, como el de acceso, rectificación, supresión, oposición, limitación del tratamiento y portabilidad de sus datos personales, u otros reconocidos por la normativa aplicable, y a no ser objeto de decisiones individualizadas automatizadas

La comunicación debe hacerse de forma inmediata por correo electrónico a la dirección info@izenpe.com, a más tardar en el plazo de 72 horas siguientes al de la recepción de la solicitud del ejercicio de derecho, incluirá la identificación fehaciente de quien ejerce el derecho e irá acompañada, en su caso, de la documentación y de otras informaciones que puedan ser relevantes para resolver la solicitud que obre en su poder.

Asistirá al órgano responsable del tratamiento, siempre que sea posible, para que pueda cumplir y dar respuesta a la persona interesada que ejercita su derecho.

- j) Colaborará con el órgano responsable del tratamiento en el cumplimiento de sus obligaciones en materia de medidas de seguridad, en la comunicación y/o notificación de brechas (logradas e intentadas) de medidas de seguridad a las autoridades competentes o a los interesados y en la realización de evaluaciones de impacto relativas a la protección de datos personales y consultas previas al respecto a las autoridades competentes, teniendo en cuenta la naturaleza del tratamiento y la información de la que disponga.

Asimismo, pondrá a disposición del órgano responsable del tratamiento, a requerimiento de este, toda la información necesaria para demostrar el cumplimiento de las obligaciones aquí previstas, y



Halaber, tratamenduaren erantzulearen esku utziko du, honek eskatuta, dokumentu honetan ezarritako betebeharren betetzea frogatzeko beharrezkoa den informazio guztia eta tratamenduaren erantzuleak egin ditzakeen auditoria eta ikuskaritza guztietan parte hartuko du.

- k) Azpikontratazioaren bat egongo balitz enkargua gauzatzeko, HAEEK ondokoak bermatu beharko ditu:
1. Azpikontratazioak egiten dituen datu pertsonalen erabilerak indarreko legedia, Ebazpen honetan jasotakoa eta tratamenduaren erantzulearen jarraibideak betetzen dituela.
 2. HAEEK eta azpikontratazioak hitzarmen bat sinatuko dutela agindua gauzatzeko, huraren baldintzak Ebazpen honetakoak bezain zorrotzak izan beharko direlarik. Aipatu hitzarmena tratamenduaren erantzulearen esku utzi beharko du, honek eskatuta, bere existentzia eta edukia frogatzeko.

colaborará en la realización de auditorías e inspecciones llevadas a cabo, en su caso, por el órgano responsable del tratamiento

- k) En el caso de que se dé la subcontratación con ocasión del encargo, el IVAP deberá garantizar lo siguiente:
1. Que el tratamiento de datos personales por parte del subcontratista se ajuste a la legalidad vigente, lo contemplado en esta Resolución y a las instrucciones del órgano responsable del tratamiento
 2. Que el IVAP y la empresa subcontratista formalicen un contrato de encargo de tratamiento de datos personales en términos no menos restrictivos a los previstos en la presente Resolución, el cual será puesto a disposición del órgano responsable del tratamiento a su mera solicitud para verificar su existencia y contenido

ZORTZIGARRENA.- HITZARMENA AMAITUTZAT JOTZEA

Hauek izango dira hitzarmen hau amaitzeko arrazoiak:

- Bi aldeak hitzarmena bertan behera uzteko ados daude.
- Hitzarmenaren indarraldia amaitu da eta ez da hura luzatzeko erabakirik hartu.
- Sinatzaileetakoren batek ez ditu bete bere gain hartutako betebeharrak.

Kasu horretan, aldeetako edozeinek eskaera bidali ahalko dio hitzarmena bete ez duen aldeari, epe jakin batean bete ditzan bete gabekotzat jo diren betebeharrak edo konpromisoak. Dei edo eskaera hori jakinaraziko zaie hitzarmenaren

OCTAVA.- RESOLUCIÓN DEL CONVENIO

El presente Convenio finalizará cuando concurra alguna de las siguientes causas:

- Mutuo acuerdo de las partes.
- El transcurso del plazo de vigencia del Acuerdo sin haberse acordado la prórroga del mismo.
- El incumplimiento de las obligaciones asumidas por parte de alguno de los firmantes.

En este caso, cualquiera de las partes podrá notificar a la parte incumplidora un requerimiento para que cumpla en un determinado plazo con las obligaciones o compromisos que se consideran

betearazpenari buruzko jarraipena, zaintza eta kontrola egiteko mekanismoaren ardura duenari eta gainerako alde sinatzaileei.

Eskaeran adierazitako epea igarotakoan, betebeharrak oraindik bete gabe badaude, hura bidali zuen aldeak sinatzaileei jakinaraziko die hitzarmena baliorik gabe uzteko arrazoa, eta, beraz, hitzarmena baliorik gabe geratuko da. Arrazoi horren ondorioz hitzarmena baliorik gabe geratzen bada, sortutako kalteen ondoriozko kalte-ordaina ezarri ahalko da, hala aurreikusi bada.

- Indarreko legedian ezarritako gainerako arrazoiak.

Hitzarmena amaitutzat edo desegintzat joz gero, aldeek kontratua amaitutzat jo aurretik beste aldearen eta hirugarrenen aurrean beren gain hartutako betebeharrak bete beharko dituzte.

BEDERATZIGARRENA.- HITZARMENA ALDATZEA

Hitzarmen hau bere indarraldian zehar aldatu ahalko da, alde sinatzaileek hala hitzartzen badute, eta hitzartzen diren aldaketak eranskin gisa gehituko zaizkio hitzarmenari.

HAMARGARRENA.- JURISDIKZIOA

Aldeen artean hitzarmen honen interpretazioari eta betearazpenari buruz sortzen den edozein auzi Vitoria-Gasteizko epaitegi eta auzitegien mende jarriko da.

incumplidos. Este requerimiento será comunicado al responsable del mecanismo de seguimiento, vigilancia y control de la ejecución del convenio y a las demás partes firmantes.

Si trascurrido el plazo indicado en el requerimiento persistiera el incumplimiento, la parte que lo dirigió notificará a las partes firmantes la concurrencia de la causa de resolución y se entenderá resuelto el convenio. La resolución del convenio por esta causa podrá conllevar la indemnización de los perjuicios causados si así se hubiera previsto.

- Por las demás causas establecidas en la legislación vigente.

En caso de resolución o rescisión, las partes deberán cumplir las obligaciones asumidas con anterioridad a la resolución del contrato frente a la otra parte y frente a terceros.

NOVENA.- MODIFICACIÓN

El presente Convenio podrá modificarse durante su vigencia por mutuo acuerdo de las partes firmantes, incorporándose al mismo, a modo de addenda, las modificaciones acordadas.

DÉCIMA.- JURISDICCIÓN

Cualquier cuestión que surja entre las partes, en relación con la interpretación o ejecución del presente acuerdo se someterá a los Juzgados y Tribunales de la ciudad de Vitoria-Gasteiz



Bi aldeek sinatu dute Hitzarmen hau, bat datozela adierazteko.

En prueba de su conformidad ambas partes firman el presente Acuerdo.

D^a. Maite Iruretagoiena Iburguren andrea

D^a. Izaskun Urrestarazu Amondarain and

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen
Instituto Vasco de Administración Pública

Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa-Empresa de
Certificación y Servicios, IZENPE, S.A.



I. Eranskina. Datu Pertsonalen Tratamendua.

TRATAMENDUA: IDENTIFIKAZIO-BITARTEKOAK KUDEATZEA.

- Oinarri juridikoa: baimena.
- Xedea: pertsona fisikoen identitatea egiaztatzea, Izenperen zerbitzuak edo produktuak erabiltzeko aukera izan dezaten. Horrez gain, ezeztatzeak eta iraungitzeak kontrolatzea.
- Taldea: hiritarrak.
- Datu-kategoriak: Izen-deiturak, NAN / AIZ / PASAPORTEA, kargu/lanpostua, posta-helbidea, helbide elektronikoa, telefonoa.
- Tratamenduaren erantzulea: Izenpe.
- Tratamenduaren arduradunak: HAEE.
- Lagapenak: ez dira aurreikusi, legeak eskatzen dituenen salbu.
- Nazioarteko transferentziak: ez dira aurreikusi.
- Datuak gordetzeko epealdia: 7 urte iraungi ondoren, kalifikatuak ez diren ziurtagirien kasuan; eta 15 urte luzatu direnetik, ziurtagiri kualifikatuen kasuan.
- Segurtasun-neurriak: Hartutako segurtasun-neurriak 3/2010 Errege Dekretuak, urtarrilaren 8koak, Segurtasunerako Eskema Nazionala Administrazio Elektronikoaren eremuan arautzen duenak, bere II. Eranskinean (Segurtasun-neurriak) jasotzen dituen horiek dira.

APLIKATZEKOAK DIREN SEGURTASUN-NEURRIAK.

- Hasierako identitate-baliozkotzea.
 - Izangaiaren identitatea egiaztatzea eta ziurtagiri-eskari guztiak zehatzak, baimenduak eta osoak direla baieztatzea, bilduriko frogekin edo identitatearen lekukotasunarekin bat.
 - Jaulki, berritu edo ezeztatuko dituen ziurtagirien inguruko informazio eta dokumentazio guztia gordetzea.
 - Arrazoizko arreta aplikatuz, ziurtagiriak ezeztatze eskaerak berehala eta era egokian jakinaraztea Izenperi.
 - Bere eginkizunen gauzatzeko eta aipatu eginkizunetarako beharrezkoa den informazioa gordetzeko aplikatzen dituen prozedurak ikuskatzeko eta artxiboak ikusteko aukera ematea Izenperi.
 - Jaulkipen- eta ezeztatze-eskariak eta erantzuleak jaulki dituen ziurtagirietan eragina duen beste edozein alderdi jakinaraztea Izenperi.
 - Ziurtagiriak jaulki, berritu eta ezeztatze kudeaketa-eginkizunen gauzatzean, Izenpek ezarritako prozedurak eta arlo honetan indarrean dagoen legedia betetzea.



- Araudia eta segurtasun-estandarrak betetzea (DBEO, ISO, ETSI).

- Ziurtagiri-eskariak prozesatzea.
 - Erregistro-datuak era seguruan trukatu dira eta aitortutako erregistro-zerbitzuetako hornitzaileei soilik; beren identitatea egiaztatua izan beharko dute.

- Langileak kontrolatzea.
 - Operadoreek eragiketen fidagarritasuna babesten dutela bermatzea.
 - Beharrezko ezaguerak, fidagarritasuna, eskarmentua eta gaikuntzak dituzten eta, eskainiko dituzten zerbitzuen arabera, segurtasun-arauen edo datu pertsonalen babesaren inguruko trebakuntza jaso duten langileak erabiliko dira.

- Eragiketen segurtasuna.
 - Balizko aldaketen aurrean babestuta dauden eta gauzatuko dituzten prozesuen segurtasun teknikoa eta fidagarritasuna ziurtatuko duten sistema eta produktu sinesgarriak erabiliko dira.
 - Sistemen eta informazioaren osotasunak birus, software gaizto eta baimenik gabeko softwarearen aurka babestua egon beharko du.
 - Sistemen barruan erabilitako bitartekoak era seguruan erabili beharko dira kalteak, lapurketak, baimenik gabeko sarbideak eta zaharkitzeak ekiditeko bitarteko horiei dagokienez.
 - Prozedura bereziak ezarri eta aplikatu beharko dira, ondokoak bermatzeko:
 1. Segurtasun-adabakiak arrazoizko epealdi baten barruan aplikatuko dira, eskuragarri daudenetik.
 2. Beren aplikazioak dakartzan onurak baino handiagoak diren urrakortasunak edo ezegonkortasunak badakartzate, ez dira segurtasun-adabakiak aplikatuko.
 3. Segurtasun-adabakirik ez aplikatzeko arrazoiak idazki batean jaso beharko dira.

- Sareko segurtasuna.
 - Sarea eta sistemak erasoen aurka babestuko dira.
 - Beharrezko teknika- eta antolakuntza mailako neurriak hartuko dira datu pertsonalen baimenik gabeko edo legearen aurkako trataera edo datu pertsonalen istripuzko galera edo suntsipena ekiditeko.

Nolanahi ere, beharrezko mekanismoak ezarriko ditu ondoko xedeetarako:



- ✓ Tratamendu-sistema eta -zerbitzuen betiereko konfidentziasuna, osotasuna, eskuragarritasuna eta erresilientzia bermatzea.
- ✓ Jazoera fisiko edo teknikoren bat dagoen guztietan, datu pertsonalak ikusi eta eskuratzeko aukera ahalik eta azkarren bermatzea.
- ✓ Tratamenduaren segurtasuna bermatzeko xedearekin ezarritako teknika- eta antolakuntza-mailako neurrien eraginkortasuna aldizka egiaztatzea, ebaluatzea eta baloratzea.
- ✓ Datu pertsonalak zifratzea edo ezizen bitartez ezkutatzea, dagokionean.



Anexo I. Tratamiento de datos personales.

TRATAMIENTO: GESTIÓN DE MEDIOS DE IDENTIFICACIÓN.

- Base jurídica: consentimiento.
- Finalidad: Verificar la identidad de personas físicas, con el fin de que puedan ser usuarias de los servicios o productos de Izenpe. Además control de revocaciones y caducidad.
- Colectivo: ciudadanía.
- Categorías de datos: nombre y apellidos, DNI / NIE / PASAPORTE, cargo/puesto, dirección postal, dirección electrónica, teléfono.
- Responsable del tratamiento: Izenpe.
- Encargados de tratamiento: IVAP.
- Cesiones: no están previstas, salvo previsión legal.
- Transferencias internacionales: no están previstas.
- Plazo de conservación: 7 años desde su caducidad en caso de un certificado no cualificado y 15 años desde su expedición en el caso de certificado cualificado.
- Medidas de seguridad: Las medidas de seguridad implantadas se corresponden con las previstas en el Anexo II (Medidas de seguridad) del Real Decreto 3/2010, de 8 de enero, por el que se regula el Esquema Nacional de Seguridad.

MEDIDAS DE SEGURIDAD APLICABLES.

- Validación inicial de identidad.
 - Verificar la identidad del suscriptor, y comprobar que las solicitudes de certificado sean precisas, autorizadas y completas de acuerdo con la evidencia recopilada o la atestación de identidad.
 - Conservar toda la información y documentación relativa a los certificados, cuya emisión, renovación, o revocación gestiona.
 - Comunicar a Izenpe, con la debida diligencia, las solicitudes de revocación de los certificados de forma rápida y fiable.
 - Permitir a Izenpe el acceso a los archivos y la auditoría de sus procedimientos en la realización de sus funciones y en el mantenimiento de la información necesaria para las mismas.
 - Informar a Izenpe de las solicitudes de emisión, revocación, y cualquier otro aspecto que afecte a los certificados emitidos por la misma.



- Cumplir en el desempeño de sus funciones de gestión de emisión, renovación, y revocación de los certificados los procedimientos establecidos por Izenpe y la legislación vigente en esta materia.
- Cumplimiento de la normativa y estándares de seguridad (RGPD, ISO, ETSI).
- Procesamiento de las solicitudes de certificado.
 - Los datos de registro se intercambiarán de forma segura y sólo con proveedores de servicios de registro reconocidos, cuya identidad esté autenticada.
- Controles de personal.
 - Asegurar que los operadores respalden la fiabilidad de las operaciones.
 - Se empleará personal que posean los conocimientos, la fiabilidad, la experiencia y las calificaciones necesarias y que hayan recibido formación sobre las normas de seguridad y protección de datos personales según corresponda para los servicios ofrecidos.
- Seguridad de operaciones.
 - Se utilizarán sistemas y productos confiables que estén protegidos contra modificaciones y aseguren la seguridad técnica y la confiabilidad de los procesos soportados por ellos.
 - La integridad de los sistemas e información debe estar protegida contra virus, software malicioso y no autorizado.
 - Los medios utilizados dentro de los sistemas deben manejarse de forma segura para proteger los medios de daños, robos, accesos no autorizados y obsolescencia.
 - Se deberá especificar y aplicar procedimientos para garantizar que:
 4. Los parches de seguridad se aplican dentro de un tiempo razonable después de que estén disponibles.
 5. Los parches de seguridad no se aplican si introducen vulnerabilidades o inestabilidades adicionales que superan los beneficios de su aplicación.
 6. Se documentan las razones para no aplicar ningún parche de seguridad.
- Seguridad de red.
 - Se protegerá la red y sistemas de ataques
 - Se tomarán medidas técnicas y organizativas apropiadas contra el tratamiento no autorizado o ilegal de datos personales y contra la pérdida accidental o destrucción de datos personales

En todo caso, deberá implantar mecanismos para:



- ✓ Garantizar la confidencialidad, integridad, disponibilidad y resiliencia permanentes de los sistemas y servicios de tratamiento.
- ✓ Restaurar la disponibilidad y el acceso a los datos personales de forma rápida, en caso de incidente físico o técnico.
- ✓ Verificar, evaluar y valorar, de forma regular, la eficacia de las medidas técnicas y organizativas implantadas para garantizar la seguridad del tratamiento.
- ✓ Seudonimizar y cifrar los datos personales, en su caso.